

Nazioarteko Online Ikastaroa


“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK.
Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta
prozesu kolektiboak eraikitzen”

2. edizioa

(2020-2021 Ikasturte akademikoa)

2021

GUIDA – IKASTAROAREN AURKEZPENA



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Finantziatzaioa:



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

Alfonso Dubois

Gernika Gogoratuz

01-02-2021



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

0. MODULUA: Online Ikastaroaren aurkezpena

2

Alfonso Dubois Migoya,
EHUko irakasle erretiratu, Hegoa Institutua

Aurkezpenaren gida.

Ikastaroa 0 moduluarekin hasiko da. Modulu honek proiektuak oinarri duen ikerketa-prozesua ulertzeko elementu nagusiak jasotzen ditu. Hurrengo egunetako irakurketetan laguntzeko eta eduki garrantzitsuenak nabarmentzeko, iruzkin batzuk egin nahi nituzke.

1.- Esparru orokorra.

Lehenik eta behin, ikasturte hau estu-estu lotuta dago Gatazka egoeran dauden Lurraldeak proiektuarekin; izan ere, nazioz gairikoko faktoreek lurraldeetan duten eragina aztertu nahi da, batez ere beren etorkizunari buruz erabakitzeke duten gaitasuna gauzatzeko duten mehatxuagatik.

Baina beharrezkoa egiten da azterketa hori nola egin den gehiago zehaztea. Horretarako, lau ardatz espezifiko eta lau ikerketa-ildo zehaztu dira. Lehen mugaketa bat baino ez da izan, talde desberdinen lan-plan bat marrazteko jarraibide batzuk finkatzeko aukera eman diguna.

2.- Metodologiaren esanahia.

Metodologikoaren inguruan hitz egiteak gaitzespena eragin ohi du, abstraktuegia eta teorikoezia dela uste baitugu. Honetan, oster, ezinbesteko gaia eta oso praktikoa dela erakutsi nahi da. Metodologia ikertu nahi dugun errealitate hori ezagutzeko behar diren tresnak aukeratzea baino ez da. Pentsa dezagun horrela, eta ikusiko dugu haren esanahia hobeto uler dezakegula eta ezin dugula alde batera utzi.

3.- Erreferentzia etikoa.

Gure ikerketa-proposamena ez da neutroa. Jokoa dagoena gizarte baten etorkizuna definitzea bada, hori ezin da argudio tekniko hutsekin argitu. Gure ikerketak erreferentzia etikoa izan behar du ezinbestean.



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

0. MODULUA: Online Ikastaroaren aurkezpena

Horregatik proposamen alternatibo bat planteatzen dugu, garapen eredu tradizionalak ez bezala, justizia sozialaren helburua barne hartzen duena eta bizitza merezi duen bizitzaren kontzeptu bat proposatzen duena.

3

Baina alternatiba hori zein den deskribatzen duen definizio bakar bat, absolutua eta unibertsala denik ez dago. Errealitatera hurbiltzeko funtsezko elementua bizitza onari edo ongizateari buruz ematen diren ikuspegi aniztasuna aitortzea da. Gure metodologia gizartearen edo lurraldeen araberrako aukera-aniztasunetik abiatzen da.

4.- Konbergentzia bilatzea.

Aurreko atalean esaten dugun bezala, egoera guztietan aplikatu beharreko metodologia bakarra ere ez dago. Horregatik, gure kasuan, gure ustez osagarriak diren bi ikuspegi proposatzen ditugu: hegoaldeko epistemologiak eta gaitasun kolektiboaren ikuspegia. Hurrengo moduluetan xehetasun handiagoz azalduko dira.

5.- Praxi-proposamenak.

Etorkizun desiragarria eta posiblea eraikitzeak dakarren proposamen praktikoen lehen adibide gisa, hainbat ildo eskaintzen dira, dimentsio kolektiboetan, erreferentzia feministan eta konplexutasuna gure denboraren seinaleztat hartzean eragiten dutenak.

6.- Narratiba berriak.

Metodologiaren inguruan lantzen dugun azken atala da. Proposamen alternatiboaren funtsezko erronka da. Eraiki nahi badugu, gizarte berrien diseinuan eta gauzatzean parte hartu nahi badugu, egoera berria deskribatzeko eta esanahi berrien berri emateko hizkuntza aurkitu beharko dugu. Hau da, sortzaile izatera behartzen gaitu. Etorkizun desiragarri hori islatzeko kategoria eta tresna berriak irudikatzen jarraitu beharko dugu.

Eta, gainera, konbentzitzeko, ilusionatzeko eta motibatuzeko gai den diskurtsoa aurkitu beharko dugu. Izan ere, alternatiboa dena eraikitzea ezinezkoa izango da pertsona konbentziturik eta motibatuz gabe.

Hauek dira nabarmenduko nituzkeen eta zuen iritzipean jarriko ditudan sei gidalerroak.